XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA
OGASUN ETA FINANTZA SAILA
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1005

24/2026 DEKRETUA, martxoaren 3koa, zeinaren bidez formalizatzen den Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia, langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak eskualdatzeko.

Transferentzien Batzorde Mistoak hartutako erabakiaren 2. artikuluan ezarritakoa betez (irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez onartu zen erabakia), eta bertan ezartzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera, dekretu honen helburua da formalizatzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2026ko urtarrilaren 16an egin zuen osoko bilkuran hartutako erabakia, langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak eskualdatzeko.

Horren ondorioz, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuak, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2026ko martxoaren 3an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Formalizatzea Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzien Batzorde Mistoak 2026ko urtarrilaren 16an hartutako erabakia, langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak eskualdatzeko, martxoaren 4ko 173/2026 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan. Halaber, agintzea errege-dekretu hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian osorik argitara dadila, dekretu honen eranskin gisa.

2. artikulua.– Eskualdatutako ondare-baliabideak eta giza baliabideak Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailari atxikita egongo dira aurrerantzean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2026ko martxoaren 3an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.

ERANSKINA, MARTXOAREN 3KO 24/2026 DEKRETUARENA

173/2026, ERREGE DEKRETUA, MARTXOAREN 4KOA, ZEINAREN BIDEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN BAITZAIZKIO LANGABEZIA-BABESAREN KUDEAKETARI ATXIKITAKO ONDARE-BALIABIDEAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Konstituzioaren 149.1.1 artikuluak eskumen esklusiboa ematen dio Estatuari konstituzio-eskubideak egikaritzeko eta konstituzio-eginbeharrak betetzeko, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautze aldera. Horrez gain, 149.1.7 artikuluak xedatzen du Estatuak eskumen esklusiboa duela laneko legeriaren arloan, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura. Bestalde, Konstituzioaren 149.1.17 artikuluaren arabera, Estatuaren eskumen esklusibokoak dira Gizarte Segurantzaren oinarrizko legegintza eta araubide ekonomikoa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek haren zerbitzuak betearazi ahal izatea.

Halaber, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– III. tituluan arautzen du langabezia-kontingentziaren babesa, baldin eta, lan egin ahal eta nahi izanik, enplegua galtzen badute edo kontratua etenda edo lanaldi arrunta murriztuta badute. Langabezia-babesa maila kontributiboan eta asistentzialean egituratzen da. Bi maila horiek publikoak eta nahitaezkoak dira.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua– 18. artikuluan xedatzen duenez, Gizarte Segurantzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea –salbu eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak– eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzea. Orobat, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak, horretarako, lehen aipatu diren gaiekin lotutako zerbitzu guztiak antolatu eta kudeatu ahal izango ditu bere lurraldean, eta Gizarte Segurantzaren arloko erakunde, entitate eta fundazioak gainbegiratuko ditu, betiere Estatuak beretzat gordeta artikulu horretan jasota dauden eginkizun eta eskumenak betetzera bideratutako goi-ikuskaritza.

Halaber, Transferentzien Batzorde Mistoak, 2026ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako hitzarmena egiteko erabakia hartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain har dezan langabezia-babesaren kudeaketa.

Eta, azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dute zer eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arau horiek oinarritzat harturik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoak, 2026ko urtarrilaren 16ko bileran, erabaki zuen langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzea. Erabaki hori Espainiako gobernuari bidali zaio, errege-dekretu bidez onartzeko.

Ondorioz, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean xedatzen dena betez, Lurralde Politikako eta Memoria Demokratikoko ministroak proposatuta eta Ministro Kontseiluaren 2026ko martxoaren 3ko bileran aztertuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Batzorde Mistoaren erabakia onartzea.

Onartu egiten da Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean adierazitako Batzorde Mistoak hartutako erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko

langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak. Erabaki hori batzorde horrek hartu zuen 2026ko urtarrilaren 16ko osoko bilkuran, eta errege-dekretu honen eranskin gisa transkribatu da.

Bigarrena.– Atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak eskualdatzea.

Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak, Batzorde Mistoak hartu duen erabakian ezarri bezala eta erabakian bertan zehaztutako moduan eta baldintzetan.

Hirugarrena.– Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Batzorde Mistoaren erabakian adierazten den egunetik aurrera izango du eragina eskualdatzeak.

Laugarrena.– Argitalpena eta ondorioak.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, eta argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

ERANSKINA, MARTXOAREN 4KO 173/2026 ERREGE-DEKRETUARENA

Jorge García Carreño jaunak eta Begoña Pérez de Eulate González andreak, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Batzorde Mistoko idazkariak direnez, hau

ZIURTATZEN DUTE:

Transferentzien Batzorde Mistoak, 2026ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, erabakia hartu zuela Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak, hemen adierazten den moduan:

A) Eskualdatzea babesten duten konstituzio- estatutu- eta lege-arauen erreferentziak.

Konstituzioaren 149.1.1 artikuluak eskumen esklusiboa ematen dio Estatuari konstituzio-eskubideak egikaritzeko eta konstituzio-eginbeharrak betetzeko, espainiar guztien berdintasuna bermatzen duten oinarrizko baldintzak arautze aldera. Horrez gain, 149.1.7 artikuluak xedatzen du Estatuak eskumen esklusiboa duela laneko legeriaren arloan, alde batera utzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek gauzatzea hura. Bestalde, Konstituzioaren 149.1.17 artikuluaren arabera, Estatuaren eskumen esklusibokoak dira Gizarte Segurantzaren oinarrizko legegintza eta araubide ekonomikoa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoek haren zerbitzuak betearazi ahal izatea.

Halaber, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginak –urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua– III. tituluan arautzen du langabezia-kontingentziaren babesa, baldin eta, lan egin ahal eta nahi izanik, enplegua galtzen badute edo kontratua etenda edo lanaldi arrunta murriztuta badute. Langabezia-babesa maila kontributiboan eta asistentzialean egituratzen da. Bi maila horiek publikoak eta nahitaezkoak dira.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartua– 18. artikuluan xedatzen duenez, Gizarte Segurantzaren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta betearaztea –salbu eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa mamitzen duten arauak– eta Gizarte Segurantzaren araubide ekonomikoa kudeatzea. Orobat, 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak, horretarako, lehen aipatu diren gaiekin lotutako zerbitzu guztiak antolatu eta kudeatu ahal izango ditu bere lurraldean, eta Gizarte Segurantzaren arloko erakunde, entitate eta fundazioak gainbegiratuko ditu, betiere Estatuak beretzat gordeta artikulu horretan jasota dauden eginkizun eta eskumenak betetzera bideratutako goi-ikuskaritza.

Halaber, Transferentzien Batzorde Mistoak, 2026ko urtarrilaren 16an egindako osoko bilkuran, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako hitzarmena egiteko erabakia hartu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain har dezan langabezia-babesaren kudeaketa.

Eta, azkenik, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dute zer eratan eta zer prozeduraren bidez eskualdatu behar zaizkion Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuko Administrazioaren zerbitzuak.

Arau horietan oinarrituta formalizatuko da langabezia-babesaren kudeaketari atxikitako ondare-baliabideak eta giza baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko erabakia.

B) Eskualdatzen diren ondasun, eskubide eta betebeharrak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio langabezia-babesaren kudeaketari dagozkion ondasun, eskubide eta betebeharrak, zeinak 1. eta 2. zerrenda atxikietan zehazten baitira, zerrenda horietan ezarritako baldintzetan.

2.– Eskualdatze horrek eragina duen datatik aurrera, autonomia-erkidegoa subrogatu egingo da ondasun eskualdatuaren titulartasunari dagozkion eskubide eta betebeharretan.

3.– Eskualdatzeak eragina duenetik hiru hilabeteko epean sinatuko dira, hala badagokio, entrega- eta harrera-aktak.

4.– Eskualdatzeak eragindako erantsitako 2. zerrendako kontratuei dagokienez –betearazte-prozesuan daude–, Euskal Autonomia Erkidegoa subrogatu egiten da Estatuko Administrazioak erabaki honen eraginkortasun-datan duen posizioan.

5.– Zerrenda horietan zuzenketarik edo eguneraketarik egin beharko balitz, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoko Idazkaritzak ziurtagiri bat egingo du.

6.– Horrez gain, 91.795,76 euro eskualdatzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari, behin bakarrik.

C) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkion giza baliabideak.

1.– Eskualdatzen diren ondare-baliabideei eta giza baliabideei atxikitako lanpostuak honi erantsitako 3. zerrendan daude zehaztuta. Zerrenda horietan zuzenketarik edo moldaketarik egin beharko balitz, administrazio biek aurretiaz egiaztatuta egingo dira. Horretarako, Transferentzien Batzorde Mistoko Idazkaritzak ziurtagiri bat egingo du.

2.– Bi administrazioek egiaztatu ondoren, Transferentzien Batzorde Mistoko Idazkaritzak egindako ziurtagiriaren bidez, eskualdatutako ondare-baliabideei eta giza baliabideei atxikitako langileen izenak identifikatuko dira, erabaki honek eragina izan baino lehen.

Langile horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren mendeko izatera pasatuko dira Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak eta kasu bakoitzean aplikagarri diren gainerako arauek legez aurreikusitako baldintzetan, eta bakoitzaren langile-espedientean zehazten diren inguruabar berdinetan.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eskualdatzea eta administrazio-egoera berria jakinaraziko dizkie interesdunei, Transferentzien Batzorde Mistoko Idazkaritzak eskualdatutako langileen izen-zerrenda ziurtatu bezain laster.

Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskudunei, halaber, lekualdatuko diren langileen espediente guztien kopia ziurtatua bidaliko zaie, bai eta sortutako kopuruei dagozkien hartzekoen ziurtagiriak ere.

D) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Eskualdatze honen xede den aldaketa eraginkorra izango da eraginkor denean Transferentzien Batzorde Mistoaren osoko bilkurak Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bosgarren xedapen iragankorrean aurreikusitako hitzarmena ezartzeko hartu zuen erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoak bere gain har dezan langabezia-babesaren kudeaketa.

Eta hala jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten da, Madrilen, 2026ko urtarrilaren 16an. Batzorde Mistoko idazkariak, Jorge García Carreño jauna eta Begoña Pérez de Eulate González andrea.

1. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIZKION ONDASUN HIGIEZINAK

Izena eta erabilera	Udalerria	Helbidea	Egoera juridikoa	Katastroko erreferentzia	Erregistro-datuak	Eskualdatutako azalera (m^2)	Oharrak
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Vitoria-Gasteiz	Jesus Apellaniz margolariaren kalea 11, 4A atea	Erabilera lagatzea	5959025600000050009EZ	Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4.179 zenbakiko finka	311,76	Lagapen-eskritura
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Vitoria-Gasteiz	Jesus Apellaniz margolariaren kalea 11, solairuartea	Jabetza	5959025600000040158IX	Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4.177 zenbakiko finka	702,41	Salerosketa-eskritura
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Vitoria-Gasteiz	Jesus Apellaniz margolariaren kalea 11, solairuartea	Jabetza	5959025600000030012GV	Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 4.183 zenbakiko finka	784,77	Salerosketa-eskritura
39 eta 40 zenbakiko garaje-plazak	Vitoria-Gasteiz	Jesus Apellaniz margolariaren kalea 17, sotoko solairua	Errentamendua		Vitoria-Gasteizko 3 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 11.472/39 eta 11.472/40 zenbakiko finkak		Errentamendu-kontratua
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Donostia	Bartzelona etorbidea 37-39, beheko solairua	Jabetza	6079153 N	Donostiako 6 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 12.778 zenbakiko finka	986	Salerosketa-eskritura Beheko solairu osoa eskualdatzen da
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Donostia	Bartzelona etorbidea 37-39, 1. solairua	Jabetza	6134620 N	Donostiako 6 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 12778 zenbakiko finka	1.021,15	Salerosketa-eskritura 1. solairutik 1.021,15 m^2 eskualdatzen dira, eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren esku egoten jarraitzen dute gainerako 260 m^2-ek
Donostia-Groseko biltegia	Donostia	Marino Tabuyo kalea 14	Atxikipena	10-362-25/363-24	Donostiako 1 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 7.598 zenbakiko finka	127	Atxikipen-akta
Lokala Donostian	Donostia	Katalina Erauso kalea 7-11	Jabetza	8295007	Donostiako 6 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 32.015 zenbakiko finka	702	Erabilera-baimen berezia UGT sindikatuari

Izena eta erabilera	Udalerria	Helbidea	Egoera juridikoa	Katastroko erreferentzia	Erregistro-datuak	Eskualdatutako azalera (m^2)	Oharrak
Lokala Donostian	Donostia	San Blas kalea 1	Jabetza	QDIE032	Donostiako 1 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 7.164 zenbakiko finka	475	Erabilera-baimen berezia LAB sindikatuari
Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Bizkaiko Probintzia Zuzendaritza	Bilbao	On Diego López Haroko kale nagusia 50	Ondare sindikal metatua	006/064	Bilboko 2 zenbakiko Jabetza Erregistroa, 14.218 zenbakiko finka	1.633,77	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak 1.993,77 m^2 okupatzen ditu eraikinaren 4. eta 6. solairuetan, beste erakunde eta administrazio batzuekin partekatuta. 1.633,77 m^2-ren erabilera eskualdatzen da, eta Enplegu Zerbitzu Publikoaren esku egoten jarraitzen dute gainerako 360 m^2-ek Eraikina obretan, espazio-banaketarik gabe

2. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI EGINDAKO ESKUALDATZEAK ERAGINDAKO KONTRATUEN ZERRENDA

Euskal Autonomia Erkidegoa ondoren aipatzen diren kontratuetan dagokien zatian subrogatzea

Kontzeptua	Zerbitzua non emango den	Enpresa esleipenduna	Hasiera-data	Amaiera-data	Zenbatekoa eurotan, BEZa barne (% 21):	Eskualdatutako ehunekoa
PA 8/25. Zerbitzu zentraletako eta probintzia-zuzendaritzetako goragailuen mantentze integrala eta kontserbazioa	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Orona Sociedad Cooperativa	2026-01-01	2027-12-31	120.201,50 Espainia osorako	6,24
PA 16/21. II. luzapena. Zerbitzu zentraletako eta probintzia-zuzendaritzetako dokumentuak isilpean suntsitzeko zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Destrucción Confidencial de Documentos, S.A.	2026-01-01	2026-12-31	46.200 Espainia osorako	6,24
PA 4/26. SGRO. DESA kanpo-desfibriladore erdiautomatikoak alokatzea eta mantentzea	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Rojo Medical Export And Distribution S.L.	2023-02-18	2026-02-17	59.833,29 Espainia osorako	6,24
CC 15_25. L 1. Energia elektrikoaren hornidura. AM 23/2024. 1. sorta. Penintsula	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Endesa Energía S.A. Unipers	2025-12-01	2026-11-30	2.388.566,98 Espainia osorako	6,24
PA 20/23. Luzapena. Zerbitzu zentraletan eta probintzia-zuzendaritzetan suteak detektatzeko instalazio automatikoak mantentzeko eta asistentzia emateko zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Extintores y Recargas S.L.	2026-01-01	2027-12-31	298.870,00 Espainia osorako	6,24
Estatuko Administrazio Orokorraren eta beste erakunde publiko batzuen telekomunikazio-zerbitzu finkatuak. II. fasea. Esp. 11/18. 1. eta 3. sortak: Datuen zerbitzu anitzeko sare korporatiboa eta telefonia finkoko eta Interneteko zerbitzua (Kontratu zentralizatua)	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa	Telefónica España SAU	2020-03-01	2025-02-28 (indarrean nahitaezko luzapenagatik)	7.200.850,00 Espainia osorako	6,24
Garbiketa- eta desinfekzio-zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Garbindu Limpiezas y Mantenimiento, S.L.	2024-10-07	2026-12-31	107.582,31	91,43
Segurtasun-zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Grupo Control Empresa de Seguridad, S.A.	2025-01-01	2026-12-31	120.963,70	91,43
Klimatizazioa mantentzeko zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	TECMAN Servicios de Valor Añadido, S.L.	2025-06-19	2027-06-18	16.375,67	91,43
Paketeria ikuskatzeko eskaner-sistemaren urteko mantentze-lanak AT, XIS 5335rako	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Target Tecnología Sa	2025-01-01	2025-12-31 (urtero berritzeko)	2.407,90	91,43

Kontzeptua	Zerbitzua non emango den	Enpresa esleipenduna	Hasiera-data	Amaiera-data	Zenbatekoa eurotan, BEZa barne (% 21):	Eskualdatutako ehunekoa
2 ate automatikoren CM2 mantentze-lan prebentiboen urteko kontratua (azterketak + abisuak)	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Puertas Automáticas Pormanorte, S.L.	2025-01-01	2026-12-31	944,53	91,43
Sarrera bidegabeen aurkako alarmen CRAra urteko konexioa eta giltzen zaintza eta Acuda zerbitzua	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Gipuzkoako Probintzia Zuzendaritza	Sabico Seguridad, S.A.	2025-01-01	2025-12-31 (urtero berritzeko)	69,79 euroko gastu finkoa eta 71,29 euro irteera bakoitzeko	91,43
Garbiketa 01_PAS_1_2025	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Limpiezas Abando	2025-08-16	2026-08-15	44.690,24	85,11
Zaintza 01_PAS_1_2024	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Grupo Control	2025-08-16	2026-08-15	54.014,40	85,11
Planten mantentze-lanak hamabostean behin	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Indoor Garden	2025-09-01	2026-08-30	2.904,00	85,11
Gas-hornidura RL4	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Total Energies	2025-02-10	2026-02-09	Kontsumoaren arabera	85,11
Berokuntzaren eta klimatizazioaren mantentze-lanak	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Termofuel	2026-01-01	2026-12-31	1.940,02	85,11
Paketeriako eskanerraren mantentze-lanak	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Target	2026-01-01	2026-12-31	2.444,20	85,11
Sarrera bidegabeen aurkako alarmaren eta CCTVren mantentze-lan nagusiak	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Ayc Automatismos	2026-01-01	2026-12-31	1.274,35	85,11
Ate automatikoen mantentze-lanak	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Arabako Probintzia Zuzendaritza	Portis Sl	2025-01-01	2025-12-31 (urtero berritzeko)	823,28	85,11
Garbiketa	Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren Bizkaiko Probintzia Zuzendaritza	Limpiezas Abando	2025-04-01	2026-03-31	34.938,60	91,06

3. ZERRENDA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOARI ESKUALDATZEN ZAIZKION GIZA BALIABIDEAK

3.1.– Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

3.1.1.– Araba-Funtzionarioak.

Unitatea	Unitatearen izena	Lanpostua	Izena	Maila	Lanpostu-mailako osag. zenbat.	Berariazko osag.	Oinarrizko soldata	Lanp. mota	Hornik.	Ad. Pu.	Taldea / Azpitaldea	Lanpostua gordetzea	Kidego-taldea / Kidegoa	Oharrak
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	2561766	Letradua	24	10.057,04	5.636,26	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A1A2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4690186	Letradua	24	10.057,04	5.636,26	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A1A2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	3135873	N22 prestazioen ataleko burua	22	8.796,34	5.636,26	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4256836	N22 prestazioen ataleko burua	22	8.796,34	5.636,26	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	3364366	N22 ataleko burua	22	8.796,34	5.636,26	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	882686	Ataleko burua	20	7.586,32	6.355,58	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	3626997	Bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4690334	Bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4738142	Bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	2466453	N16 prestazio-bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	3116150	N16 prestazio-bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	3785200	N16 prestazio-bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4065645	N16 prestazio-bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	2169054	N16 bulegoko burua	16	6.037,64	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	1302134	Urgazlea	14	5.263,02	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4854001	N14 bulegoko urgazlea	14	5.263,02	4.422,74	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C2		EX11	
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	5270754	Laudioko 2. Prestazio-bulegoko zuzendaria	24	10.057,04	8.701,00	18.087,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A1A2		EX11	
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	4013918	Arloko burua	22	8.796,34	10.070,48	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	Jend. arreta C2

Unitatea	Unitatearen izena	Lanpostua	Izena	Maila	Lanpostu-mailako osag. zenbat.	Berariazko osag.	Oinarrizko soldata	Lanp. mota	Hornik.	Ad. Pu.	Taldea / Azpitaldea	Lanpostua gordetzea	Kidego-taldea / Kidegoa	Oharrak
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	2524627	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.373,90	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1		EX11	
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	4518818	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	9.511,46	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	Jend. arreta C1
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	5149732	Laguntzailea	17	6.424,18	5.373,90	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5270753	Vitoria-Gasteizko 1. Prestazio-bulegoko zuzendaria	25	10.687,74	9.337,72	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A1A2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4690704	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4690706	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5149729	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	3664964	Prestazio-bulegoko arloko burua	22	8.796,34	6.355,58	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	3064473	Prestazio-bulegoko arloko burua	22	8.796,34	6.355,58	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4704717	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4735993	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4795073	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4795074	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4690193	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5270763	Vitoria-Gasteizko 1. Prestazio-bulegoko zuzendaria	25	10.687,74	9.337,72	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A1A2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	2467577	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	4690188	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	

Unitatea	Unitatearen izena	Lanpostua	Izena	Maila	Lanpostu-mailako osag. zenbat.	Berariazko osag.	Oinarrizko soldata	Lanp. mota	Hornik.	Ad. Pu.	Taldea / Azpitaldea	Lanpostua gordetzea	Kidego-taldea / Kidegoa	Oharrak
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5149728	Teknikaria	20	7.586,32	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	2290829	Arloko burua	22	8.796,34	6.355,58	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	2378376	Prestazio-bulegoko arloko burua	22	8.796,34	6.355,58	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	1179670	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	1648632	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	2162142	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	3544329	Laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	1248980	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.373,90	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	733853	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.373,90	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	782042	Prestazio-bulegoko urgazlea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C2		EX11	
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	5088909	RATEL Vitoria-Gasteiz bulegoko arloko burua	22	8.796,34	6.355,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	A2C1		EX11	
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	2437245	Laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	1393539	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	2453580	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	4795075	Prestazio-bulegoko laguntzailea	17	6.424,18	5.375,02	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	5710101	Teknikaria	20	7.586,32	4.822,16	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Kid. orok. esk.

Unitatea	Unitatearen izena	Lanpostua	Izena	Maila	Lanpostu-mailako osag. zenbat.	Berariazko osag.	Oinarrizko soldata	Lanp. mota	Hornik.	Ad. Pu.	Taldea / Azpitaldea	Lanpostua gordetzea	Kidego-taldea / Kidegoa	Oharrak
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4690192	Bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	4.422,74	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4690195	Bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	4.422,74	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5569165	Teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Kid. orok. esk.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5635771	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5787508	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.375,02	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1		EX11	Kid. orok. esk.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4355479	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.375,02	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	4690191	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.373,90	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1C2		EX11	Kid. orok. esk.
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5720590	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5811294	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Kid. orok. esk.
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5149730	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.373,90	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	5789463	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.459,30	12.181,68	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1		EX11	Barne koord. lanp.
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	3388595	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.459,30	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
50897	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz-RATEL	4798775	Prestazio-bulegoko laguntzailea	16	6.037,64	5.459,30	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Espar. ak.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	5710100	Teknikaria	20	7.586,32	4.822,16	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	5720530	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	4.822,16	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	2411215	Laguntzailea	16	6.037,64	5.373,90	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C1C2		EX11	Barne koord. lanp.

Unitatea	Unitatearen izena	Lanpostua	Izena	Maila	Lanpostu-mailako osag. zenbat.	Berariazko osag.	Oinarrizko soldata	Lanp. mota	Hornik.	Ad. Pu.	Taldea / Azpitaldea	Lanpostua gordetzea	Kidego-taldea / Kidegoa	Oharrak
50894	Prest. bul. SEPE Laudio	5685055	Prestazio-bulegoko urgazlea	15	5.649,56	5.373,90	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C2		EX11	Kid. orok. esk.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5635770	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
50895	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 1. zk. (Salburua)	5789554	Prestazio-bulegoko urgazlea	15	5.649,56	5.373,90	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C2		EX11	Barne koord. lanp.
50896	Prest. bul. SEPE Vitoria-Gasteiz 2 zk. (Zabalgana)	5863409	Prestazio-bulegoko teknikaria	20	7.586,32	6.222,58	15.905,28	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	A2		EX11	Barne koord. lanp.
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4029274	Urgazlea	14	5.263,02	4.822,16	10.325,54	Eskakizun berezirik gabea	Lehiak.	Est. Adm.	C2		EX11	

3.1.2.– Araba-Lan-kontratudun langileak.

Unitatea	Unitatearen deskribapena	Lanpostua	Lanpostuaren deskribapena	Lanbide-taldea	Lanbide-espezialitatea	Lanbide-arloa	Kategoria lan-kontratuduna	Osagarri berezia	Ordutegi-osagarria	Soldata	Lanp. osag. berez. B	JP4	PRJ
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4909749	1G - Administrazioa	1G	0015					33.439,84			
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4910838	3G - Administrazioa	3G	0015				JP4 1916.40PRJ 1199.64	21.945,00		1.916,40	1.916,40
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4915183	E1 - Administrazio-zerbitzuak	E1	0187				JP4 1672.20PRJ 960.60	18.461,52		1.672,20	960,60
36952	Arabako Probintzia Zuzendaritza	4915189	E1 - Administrazio-zerbitzuak	E1	0187	AK			JP4 1672.20PRJ 960.60	18.461,52		1.672,20	960,60
